


Bizkaitarrei Bizkaieraz

ZAR

381n. zenbakia • 2012 jorraitha



www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

TXANGOAK BASERRIETARA (Agroturismo)



Ipuin sariketa.
Prontxio ta Kalixto



Ama Begoñakuari
Bizkaitar batek jarritako bertsoak.

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2011-2012 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 44. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 10an

44. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 10 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 25 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

www.euskerazaleak.biz

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

www.flashcomposition.com

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN URTEKO BATZAR NAGUSIA BILBAON 2.012N EPAILLAREN 29N

Bi milla eta amabigarren urtean Epaillaren 29an arratsaldeko zazpiterdiak zirala, Euskerazaleak Alkartearen Zuzendari Batzordeak, aurretiaz deia eginda, Batzar Nagusia egin eban.

Bilbaon, Kolon de Larreategi kaleko 14n zenbakian, 2gn solairuan dagon Euskerazaleak Alkartearen giza-etxean.

Batzar onetara, aitatzen diran batzarkideak batu ziran:

- Alonso´tar Margarita.
- Alonso´tar Miren.
- Basañez´tar Eloie.
- Garai´tar Jorje.
- Guzman´tar Inazio.
- Arrieta´tar Koldobike.
- Arrieta´tar Itziar.
- Fernandez´tar Karmele.
- Egurrola´tar Iñaki.
- Barroeta´tar Klaudio.
- Atutxa´tar Paul.

AURKEZPENA: Leenengo, batzarrari asiera emoteko, Barroeta tar Klaudio Euskerazaleen alkarteko lendakariak batzarraren antolakuntza zelango baldintzatan egingo genduan adierazi eban. Ondoren, zutunik abestu euskun emen agertzen dan bertsoa:

EUSKERAZALEAREN
zerutar urdiña,
ez ustean ein jakun,
illun ta liriña.
Izar ederra zana,
ANA maite-miña,
ostondu jakun ixil,
sortuz biotzmiña.
Argi bezaigu, goitiki,
gozatuz samiña.

1´go .- IDAZKARIA: Atutxa idazkariak, aurreko Batzar-Nagusiaren 2011ko agiria irakurri eban eta ontzat artu zan.

2´gn .- 2.011ko DIRU KONTUA:

Karmele arduradunak auxe esan euskun:

Urtero lez, 2011ren urteko kontuak emongo dautsuedaz.



Aurten be, betiko lez zorkarian amaitu dogu, ba dakizue egitamu guztitarako Foru Aldundiak, % ´tik 60 emoten dauskuela eta guk % ´tik 40 ipiñi bear dogula.

Aurten urtero lez, etxeko zerga bereziak euki doguzela, tellatua eta bailagibela barriztuteko. Biak oraindiño amaitu barik dagoz. Asieran 800 eurokin asi gintzazan illero ordainduten, baña 2013´ko dagonillarte 1.000 ta zeozer geiago izango diranak, lan orren kopurak 30.000 izango diralako guretzat, gitxi gora-bera.

Aurtengo egutegia ale gitxiagorekin egin dogulako dirua aurreratu dogu eta Foru Aldundiko diruaren ezbardintasuna, zuzendaritzaren diruaz osatu dogu.

Foru Aldundiak aurten diru laguntza gitxituko dau, eta orregaitik etxeko lanak ordainduteko aurrezki kutxatik mailebatuko dirua eskatu bear dogu. Eta orretarako, zuen baimena eskatzen dogu.

Datorren urterarte eukiko doguz zerga bereziak, 2013 ko dagonillan amaituko dira lan guztiak eta “vicios ocultos” agertu diralako 352.075,98 euro izango dira guztiz, asieran 270.281,72, izan zirenan.

Labayruk 2012 ko dirua aurreratu dau eta ura, sarama ta argiaren ordaintzako % ´tik 75 ordainduko dabez lenengo zatia ekainan eta bigarren zatia urtea amaitzean.

Batzar Nagusian, etxea konpontzeko joan dan urtean lez bear izan ezkeru, ontzat artu zan, dirua maileguz aurrezki kutxatik eskatutea.

Beste barik, datorren urterarte, Jaungoikoa lagun.

DIRUZAINTZAREN ARDURADUNA

Fernandez eta Ruiz de Eskide tar Karmele

3´gn .- URTEKO EKINTZAREN AZALPENA:

Arlo onen azalpena, Barroetatar Klaudiok adierazi eban lendakari lez.

**EUSKERAZALEAK ALKARTEA
2.011n URTEKO EKINTZAK**

Adiskideok:

Urte guztietan lez, Batzar-Nagusi onetan, urte barruan egin doguzan lanen barria emoten dogu.

**ILLEROKO BATZARRAK eta
URTEROKOA:**

Utsik egin barik bete doguz illero eta urteroko batzarrak, Atutxatar Paulok gure bazkide eta idazkariaren BATZAR AGIRIETAN ikusi daiteken lez.

IPUIN-SARIKETA:



Urte guztietan lez eginda, oneik izan dira aurtengo sarituak:

- 1´go SARIA: Merino tar Palmi
- 2´gn SARIA: Arrien tar ziortza.
- 3´gn SARIA: Etxaburua tar Asier
- 4´gn SARIA: Murua tar Joxe mari
- 5´gn SARIA: Ezkurdia tar Alfonso

LABAYRU

Joan zan igezko batzarrean Lendakari eta idazkariak, Labayru-gaz berba egien erabaki zan, eta alkarrizketa batzuen ondoren, ekaiñaren amaieran agiri-idazlearen aurrean izenpetu zan alde bietako erabakitu zana, Labayru-koak % ´tik 75 ordainduko ebezala etxearen eguneroko ordainketakoak eta Uztailla´n asi ta irailararte iraun eban etxearen barruko barrizketa guztien ordainketa. Eta Euskerazaleak Alkartearen ordainketak % ´tik 25a.

Benetan txukun gelditu jakula etxea.

EUSKAL ASTEA:

Euskeraren Astea be ospatu gendun Zemendia-ren 21tik. egunetik ogeitabost garreneko egunerarte:

- 21- Atutxa tar Paul.
- 22- Uriarte tar Ana
- 23- Barroeta tar Klaudio
- 24- Larrea tar Angel
- 25- Atutxatar Paulok bere bigarren berbaldia azaldu eban.



5. EGUTEGI-TAKOA BIZKAIERAZ

Betiko lez, Egutegi-takoa argitaratu dogu Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntzagaz.

Diru laguntza eukiten badogu, jarraituko dogu Takoa argitaratzen, ori murrizten badauzkue baña, ez da erreza izango guk bakarrik argitaratzea.

Aurten ez dakigu zer gertatuko dan; orregaitik Uztaillarte´arte ez dogu ezer jakingo.

Gu, orritxuaren atzean agertzen dan textoa edo esaria idazten dogu.


Konturatuko zarie baiña, urtero desbardiña dala, eta 365 zatitxu orreik idaztea lan aztuna dala, ezberdiñak izatea gura badoguz ezkeroz.

Betiko lez, Takoak Durangoko Azokan, arrakasta aundia izan eban.

Jendea oitu da an eskatzen, eta zuzen joaten dira Gerediaga Elkarteko saltokira gure takoa eskatzera.

Takoa gainera “Bizkaieraz” eskatzen dabe.

Beste leku batzuetan be banatzen dogu: eskoletan, ikastoletan, parroki batzuetan (Iurreta, Gorozika, Zornotza e.a.) eta mugako errietan (Aretxabaleta, Bergara, Aramaiao, Motriku. Gasteiz, e.a.)




6. EUSKERAZALEAK INTERNET'EN

www.euskerazaleak.biz

Gure web orria ortxe jarraitzen dau, eta orain arte 250.000 ikusle euki doguz.

Eskatzen daben argibide barriagaitik, badakigu Goi Mailako ikastetxe eta orrelako lekuetatik datozela geien, ainbeste ikusle eukiteko. (Deustu eta Errioxako Unibertsitate edo goi-ikastetxeetatik)

Barruen daukazan argibide barriak obetzen saiatzen gara, naiz eta batzuetan antzerakoak dirala uste izan.



Prest gagoz beste lan batzuk jartzeko, “baimenak” bear doguz baiña eta ez da erreza ori lortzea.

Baten batek zeozer or ipintzeko baleu, prest gagoz artzeko.

Ez dauka zetan bizkaieraz izan bearrik “erriko euskerea” izanez gero.

7.- IRAKASKINTZA:

Urte guztietan lez, jarraitu dogu asieratik Alkarte onen elburua izan dan Euskera irakastea.

Ikasleak aspaldian ez dira gitxiagotu eta ez ugaritu be. Irakasle betikoak zintzo jarraitzen dabe. Esan bear dogu, aurtan 3 pertsona joan jakuzela:

Uriarte´tar Ana, Otazua´tar Benito irakasle zana, ta Oñate´tar Agustin ikasle ta idazle.

8.- “ZER” ALDIZKARIA:

Gure “ZER” aldizkaria illero agertu da eta asko poztuten gaitu lan onek, bizkaieraz argitaratzen dan aldizkari bakarra dalako.

Argitaratu eta zabaltzeko, ez daukagu arazo aundirik, saria eskuratzeko baiña, Bilbon gaitz egiten jaku diru-biltzaille bat aurkitzea, eta errietatik ezin dogulako dirurik eskuratu, gitxi dira BBK´tik ordaintzen dabenak gure kontuan.

Eskerrak irarkolako lana Foru-Aldundiak ordaintzen dauskula.

Alan da be, aurrera egiteko asmotan gagoz. Eta zuk be, erriko euskerea bizia maite dozunez, lagundu zeinke modu onetara:

- Bazkide barrien izena emonaz.
- ZER aldizkarian atarateko lanak bialduz.
- Ekonomi arloan eskua luzatuz. Eta diru biltzaleak aurkeztuz.



9.- ETXEA:

Ba-daukaguz arazoak etxe zarra dalako, eta zerga-bereziak edo “derramaren” ordaiketa aundiak diralako. Aurtengo 2012 eta datorren 2013 ordainketa asko egin bear dira, eta orregatik zerga-berezi andiak eukiko doguz.

Amaitzeko, eskerrak emon bear daukaguz Bizkaiko Foru Aldundiari ta Bilboko Udaletxeari.

Ez gitxiago idazleai, irakurle eta lankide guztiai. Bai ta eskerrak be irakasleei eta ikasleei zintzoak izategaitik.

Ekintza guzti oneik, ontzat artu ziran.

ZUZENDARITZAREN EGOKITASUNA:

LENDAKARIA- BARROETA

AMORRORTU´tar Klaudio

LENDAKARIORDEA- EGURROLA

MADARIAGA´tar Iñaki

IDAZKARIA- ATUTXA AGIRRE´tar Pablo

DIRUZAINZA- FERNANDEZ RUIZ

DE ESKIDE´tar Karmele

MAIKOA- ARRIETA GOYA´tar Emille

MAIKOA- ARRIETA GOYA´tar Maria Luisa

MAIKOA- ASTOBIZA URIARTE´tar Jokin

MAIKOA- ARRIETA GOYA´tar Itziar

(URIARTE EUBA´tar Anaren orde, G.B.)

Ontzat artu ziran batzarkide guztiok, eta eten barik jarraituko dabe aurrerantzean.

GALDE-ERANTZUNAK:

Igaz il jakon Oñate´tar Agustin gure ikasle eta idazlea, aurtun Uriarte´tar Ana gure batzarkidea ta laguntzalle zintzoa, eta baita Otazua´tar Benito gure irakaslea zana ta idazle ospetsua.

Margari Alonsok diru biltzailerik aurkituten ote dogun eta beste alde batetik Labayrukoak ia laguntzen ote daben geiago.

Askartza´rena:

Egurrola´tar Iñakik, Askartza´ren ordezkariak Bizkaiera´ren izkuntzazko jarraitasuna ebagi ta kentzeko asmakuntza daukiela agertu eban, eta batzarraren gogoia eskutitz gogor bategeaz erantzutea da, gure aurkako arrazoiak azalduz.

AMAIERA:

Klaudio lendakariak, batzarrari amaiera emoteko zutundu zan, eta bertso eder au eskeiñi euskun:

Mendi-katea dogu
munduko egoitza:
gora ta bera ibilliz,
bertako jendetza.
EUSKERAZALEAN be
olantxe gabilta,
bizkaiera dogula
arnas ta biotza.
¡Poztasunez beterik,
goazen aurrerantza!.

Klaudio Barroeta (Munetxe)

Beste barik eta gaueko bederatzia ziralta, batzarra amaitutzat emon genduan.

Klaudio Barroeta Amorrortu

LENDAKARIA

Paulo Atutxa Agirre

IDAZKARIA





TXANGOAK BASERRIETARA (Agroturismo)

SARRERA

Oporraldia non igaro izaten da udaldian gure buru-auste bat. Eta bardin jazoten jaku, sarritan, aste-azkena non igaro pentsatzen dogunean.

Non etxean baiño obeto? Esan lei etxean txarto bizi garala. Aste-azken luze bat (zubi bat) daukagunean, beti aukeratzen dogu urtetea, baiña ez da etxean txarto bizi garalako, eguneroko “beti-bardiña” aldatu gura dogulako baiño.

Orretarako era edo bide bat eskintzen dausku “agroturismo” erderaz esaten dautsoen eta txangoak baserrietara egiteko dan jokabideak. Auxe da lan onetan aurkeztu nai dogun bidea.

JOKABIDE BARRIA

Bizkaia´n oraintsu asi da txangoak baserrian egiteko jokabidea, baiña ainbat aukera eskiñi daikeguz: Baserritarrak elburu orretarako egokitu dabezan etxeak dira.

Beste alde batetik, gure gastronomia toki guztietan dan ezagutua eta goratua eta asko dira jokabide au janari egokiak aurkitzeko artzen dabenak, bertoko euskaldunak naiz kanpokoak.

Gaiñera atsegiñak dira olako etxeetan ibillaldiak egiteko aurkitzen dira aukerak, inguruko landen, soloen eta mendien artean.

Jokabide au kanpotik etorria dogu. Orain ogei urte asi zan Alemania´n, andik laster Austria´n, Grezia´n, Italia´n, Frantze´n eta gure Laburdi, Benaparroa ta Zuberoa´n. Gaur Europa´ren sartalde guztia dago olako etxez beterik. Gure inguruan Naparroa asi zan lenengo, orain ogeita bost urte eta Egoaldeko beste lurraldeetan 1995n. urte-inguruan asi dira, orain amabost-bat urte.

ORRETARAKO ALKARTEA

Jokabide au bideratzeko alkarte bat sortu da eta Bizkaia´ko erri polita dan Garai´n kokatu, Araba´n, Bizkaia´n eta Gipuzkoa´n sortzen dira baserri-txangoak eratzeko.

Egia esan, lekua eskatu eta artu baserri bakoitxean egin bear da, baiña alkarteak be emongo dautsez nai dabenai bear dabezan jakingarriak: liburuskak, olako baserriak non dagozan, jabea nor dan, urrutizkiña, ordaintzekoa, zelako janari bereziak eskintzen dabezan eta abar.

1992n. urtean oneik ziran eskintzak: Araba´n 18, Bizkaia´n 29, Gipuzkoa´n 48 eta Naparroa´n 131, guztiz 226. Gaur asko geiago izango dirala uste dogu.

Etorten diranak Euskalerrikoak, Kataluña´koak eta Aragoi-Madrillekoak izaten dira.

Etxe oneik urte guztian dagoz zabalik eta guztiak daukez ur beroa eta etxeko berogaillua.

Bulego bi dagoz laguntza eskintzeko:

- OFICINA DE AGROTURISMO. Done Mikel 11, 1ª. 48 200 Garai-Bizkaia. Tel. 94 620 1163 eta 94 620 11 88.
- OFICINA DE INFORMACION Y RESERVAS. Duque de Ahumada 3. 31 002 Iruña-Pamplona. Tel. 94 822 07 41.

Lenengoa Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba´rako da, bigarrena Naparroa´rako.

TXANGO-LEKU EGOKIAK DIRA

Txangolarriak autonomi aundia dauko olako etxetan eta berak ardurea artu bear dau, jakingarriak eskatuta, bideak, ikustaldiak eta ekintzak eratzeko.

Ardura ori artu ezkeru, ain izadiaren barruan egoteak asko laguntzen dau atsedeen-aldirik onenak aurkitzeko.

Ondo izango da inguruko auzoak eta baseleizak ikertzea edo erri andietako eleizak naiz erri-etxe gogoangarriak ikustea: Edestia dauken etxeak, iturri ospetsuak, kurutzeak, zubiak eta abar...

Beste urteera batzuk inguruko ibar eta mendietara izango dira: Ikuspegi ederrak aurkitzen dira, aiztu-eziñak.

Baserrietan antxiñako oiturak eta lanabesak aurkitu leikez.

Jaime Kerexeta´k argitaratu eban liburu eder bat (lau ale): "Casas solariegas de Bizkaia". Ara zer diñon berak: Etxeak gure abizenen jatorria dira eta orregaitik dautsegu maitasun berezia, gure aurrekoak itzi euskuen ondasun aundia diralako. Jarraitu dagiela zutunik gizaldi ta gizaldietan".

ASTI-UNEAK NON IGARO ETA ZER EGIN.

Europa osoan gaur bide asko eskintzen dira asti-uneak igaroteko eta ez beti eguzkitan eta ondartzetan.

Gure giro euskalduna ez da lurrarte-itxasoarena bera: Otz-beroak ez dira bardiñak, ikuspegiak be ez, euri-egunak be ez, eta aldakuntza aundia daukagu janarietan. Gure sukaldariak ospetsuak dira munduan: Arzak, Argiñano... Ortik dator emengo gotaldiak txangolarientzat ain atsegiñak izatea.

Toki bat opor laburretarako (gau bi edo iru) eskintza ona da eta askok eskatzen dabe.

Gagozen lekuan gagozelako, opor-leku ederrak daukaguz, naiz itxas-ertzean, naiz lurraldeen barruan, naiz mendien giroan: Biarritz´eko ondartzan asi eta Muzkiz´era, Andra Maria´ren Santutegiak dira Begoña, Arrate, Arantzazu, Itziar eta olakoetara naiz monastegi ospetsuetara: Ziortza, Estibaliz, Iratxe, Leire, Irantzu...

Eta mendietan Aralar, Andia, Aitzgorri, Anboto, Udala, Gorbea... Eta gaiñera museo ikusgarriak. Dana ikertu leike baserriko egun oneitan

† OLAZAR´tar Martin´ek.



Prontxio ta Kalixto

Luzaroan bizi izana zan Prontxio Ameriketara, eta an dirutza polita egin ostean, bere jaioterrira itzuli zan. Irurogei bat urteko-edo izango zan, eta jantzi dotoreak eroiazan soiñean. Euskal erri txiker bateko semea izaki, itxasoz beste aldera euki eban bizitza bere errikora egokituten egiñaal aundiak jotzen ebillen, baiña kosta egiten jakon orratik; erritar geienak polito artu dabe, batzuek gibel-bildurrez begiratuten dautsoen arren. Bertako jentea jatorra ta nasaia zan, endreamakilla batzuk ba egozan be.

Eldu dautso Prontxio-k bere bideari, ta okindegitik oja artu ta tabernazulora sartzeagaz batera txola bat whisky eskatu dau. Ostaturko jende geiena ardaoa edota garagardoa edaten dabil, baiña Prontxio -k edari orreik gitxietsi egiten dauz.

Ara, gure indiano xaarra... ! Ardaagaz konpormatu ez ta whiskyaren eske... !, orru egin dau gazte mozkor batek.

Segi egik eure ortan, txapel orrek, ez naqik gero berotu... !, arin erantzun dautso amerikanoak.

Eroan gitxikoa doqu Prontxio, ta norbaitek zirika-

tzen badau, bereala egingo dautso aurre; jarraitu egin dau: Txarto eziak dagoz oraingo gazteak, ez ta urrik emon ez geure garaikoakaz. Ameriketara be ez dot olango portatera exkakik ikusi!

Zer diñozu, Prontxio, diño beste batek: Ameriketatik elduten jakuzan barrietan lege-auste ta lardaskeria baiño ez doqu-ta ikusten; ango jendearen eziñ-egona... Ango ibillera barregarriak... Nun bizi ete leike geure Euskalerrin baiño obeto? Munduan ez dago olangorik!

Prontxio -k amorratu antzean badirautso: Bai, zuek artaburuok zeuon txilborrari baiño ez dautsozue begiratuten... ! Txapel orrek egoki ikustea galazotuten dautsu, alajainkoa!

Aizu, ori bai jokaera kaxkarra, geure gauzak zapuztea ta nundinaiko oitura ta ibillera arrotz eta illunak geureganatzea! Zeuk gaztetan buruan zeroian txapelari muxiñ egiten dautsozu orain! Laiñeza ederrak artu dozuz lur illun urrun areitan, gero!

Ozenki xamar dabizanez, tabernariak nasaixeago berba egin daiela esan dautse, ganerakoan bezeroak uxatuko dautsoezalakoan. Marixe esaten dautsoe



tabernariari, ta ez da edale arrotuen bildur, ta badaki jakin areik gobernatuten, ak baretu daitezala agindu dautsen baizen laster ixildu dira-ta.

Bai, zuek, emengo gazteak, amerikarren antza artu gura dozue, ta jazkeran

Zenbait zaarsaridun erriko ostatura sartu da, amarretakoa-edo egiteko asmoz; zaarsaridunak soilik ez, badira tartean bakan batzuk ere lauzpabost zorria baiño alperragokoak, denpora nun pasa jakin ez ta egun osoan tabernazuloan sartuta egonean egon oi diranak. Zirkiñik jo ez, baiña edan bai majo...

Kalixto dogu orreitako bat; bera da danetan mozkorrena ta besteak maxiatuten, besteakaitik txarto esaka jarduten da beti. Txopin bat ardao zurrutatu dau onezkero, alajaiña... !

Ara nun sartu dan biajante bat, soiñean jazki apaiñ eta xotillak eukazala, ttattarra ta guzfi...

-Ño, dotore zagoz, gero... -diñotso Kalixto -k. Bilbao uritik etorriko zara, jokiña, zu ez zara erri txiker batekoa...

Biajanteak begirakun zorrotz bat jaurtin bai, baiña ez dautso ezertxo be erantzun, bearbada gogoak emongo ba -eutson be.

Auxen bai señoritue. Ze, ez diranak be saltzera zatoz? Zoiaz ba, etorri zaran lekutik! Ez dok ententituten, ala? - barriz be diño Kalixto petralak; mama goxoak barrera jan dautsola-ta, zer esaten dauan be ez dakiala diñardu. - Ez dok ententituten... Berorika egingo dautsot berba orduan. Danak Berorika berba egingo dautsoe...

Aizu, aobero zoroa, ez naz zuzaz berba egitera etorri, emengo nagusiagaz egon naiten baiño. Ta orain, itxi naqizu baketan!



Zagoz ixilik, Kalixto - badirautso tabernako nagusiak, Marixe andrak. - Zagoz ixilik, bezeroak ta biajantea uxatuko daustazuz bestelan; zu bai gixon exkaxa ta baldrasa... Urrengoan aize artuten bialduko zaitut. Kalixto'ren aldean daqozan zaarsaridunetako batek badirautso:

Aizu, Kalixto, zuk bai arrazoea... Gu bai, ederto bear egindakoak... Orreik, ostera, traje elegantea soiñean jantzi ta ortxe ibilliko jatzuz, pinpirin-pinpirin, andratan joango ba lira bezalaxe - iñoan jubilatua;

Prontxio amerikauak iñoan:- Izan be, jente askorentzat, soiñean buzoa ta mahoizko galtzak daroezanak besterik ez dabe bear egiten. Zeozertaz berba egitea dozue kontua, antza danez.

Alako batean sartu da Yon tabernara; ez dabil ez bearrean, ez ta ikasten be. Jazkera arlotea antzematen joko, prakak adabakinez beteak, ta ule arro andia dauko.

Eusko ez da oindiño etorri, ala? - itaundu dautso otz antzean Marixe tabernariari; jarraitu dau - beregaz moskeauta nago, arrapatzen dodanean...

Emen beintzat ez dogu sesiorik gura, leendik be naikoa badoqu-ta - moztu dautso berbetea Marixe'k garraz.

Moskeauta? Zorritua bai egongo az i, ule naasi orretan zorri-partz ederrak eukingo dozak... Amorrarazota edo amorrak jota esan naiko dok ba, alajainkoa! - iñoan Kalixto -k.

Ara, betiko sasi-letraua, barrero baztarrak nastuten. Ta Jainkoa aitatu be ez eistazu niri egin! - Orra orain dala ondo gitxi arte ain elizkoia izan dan erria, orain erlejiñoaren etsai gorri biurturik.

Eliz atariko eskale bat dirudik itxura barregarri orregaz! Garai batean geuk be adabakiñak eroaten genduzan, baiña bear gorriagaitik, ez zuek dana omen dakizuen oiek bezala, moda utsagaitik...

- Kalixto-k orruka.

Marixe-k ostera be artu bear izan dau berbea, ta bai artu be, bai ala bai kargu artu dautse-ta; gogoak ematen dautso gaztea ta nagusia kalera-tzeko, baiña gelditzen jakon egonarri eutsi dautso zela-alan, ta barriketa gitxi. Giroa apurtxu bat baretu joku oilloteqi artan, ta aurrera doia goiza.

Elisagaitik, Elisarentzat


Elisa ezagutu ebaneko, alabearraren aize guztiak bat agindo bide zeatz batetik aurrera egiteko sakatu izan baleuste legez, Josebaren bizitak elmuga bakar bat ikuskatu eban, eta itsu-itsuan emon ebazan leenengo pausoak derriorrezko nardoabidekoa biurtuko jakon bide barri ortan zear: Elisagaz, Elizagaitik, Eliza-
rentzat.

Ogei ta zazpi urte eukazan Elisak-berak baiño lau gaitxiago-lagun batzuk eurenian eraturako afari baten alkar ezagutu ebenean. Asieran, Josebak ez eban beraganako agertu jakinmiñak ets kortesiak eragiten dabezan besteen bizitzari buruzko galdara arruntak baiño. Gero, baiña, Elisak barre egin ebanean, beren barrea iturri bat iruditu jako, aoran ur freskoa belbilkio moduan, eta ur ortatik apur batek txipristindu izan baleu legez sentitu. Josebaren ondoan, bere emaztegaia beste maikideekin berbetan ebillen.

Sei illebete gero, Elisa eta Joseba alkarregaz eskondu ziran. Arratsaldero, moketa beigarren gainean almoadoi artean jazarrita Elisak artuko eban kafea berotzen ipinten eban Josebak sukaldean. Maitasuna egiten eben sarri oraindik beaeren gainetik bertatik jaso bere egin barik egozan kikeretako kafe ondorren usainean.

Brams era Cavafis, larrosaz apaindutako txarroi, esta espolietan abesti bat ziran oinatsak aitatuz, idaz-makinapetik euren txakurraren kristalezko begi marroien begirada ixillaren konpainian, Joseba liburu bat idazten asi zan Elisaz.

Lanean murgiltzen dan idazlearenzat denpora aldakorra da, ez dauko ordui idaztitzakoan arabaera neurrik ipinterik. Maai gaineko portafotoko Elisaren argazkiari naiz beinkako begirada bat zuzenduz, beren izakera eta bien alkarbizitzaren arteko ara-onanean ebillen, beren belarri, beren begi edo



beren eskuen eskutik izan ulertezinak ziran berba. Kontenplazio eta dardadak azalduz. Elisa irribarrez agertzen zan lotaldi betetik erdi itzarturik baiño ez egala Josebak ez ustean egindako argazki bat zan eta. Oean, ule baltz naastatua, eta loak erangindako aurpegiaren espresio mantsoan, irrubarrea bigun eta atsegiña zan. Orregaitik bearbada, Joseba ez zan leenengotan konturatu Elisa gero eta beranduago etxeratzen zanik, kikarra gorrietako kafeari Elisa eldu orduko geroago sarriago tela egiten asten jakonik.

Beranduago etorriko zala jakin eragiteko telefonoz deitu eban egunera arte, Joseba ez zan karqutu aspaldian egiten ez ebezenik oizko paseoaldiak. Arratsalde orretan, Elisaren besoetan galtzeko desio eta bearrizan bizienak igarri ebazan baita etxera eltzen zaneke aize zalfada batek legez etxea betezen eben agur eta mosu alaiak faltan artu be. Baiña argazkiari begiratu, eta paperezko erraktangulotik, Elisak iribarre zabal batez agurtzen eutson, melena baltzaranak argiagaz jolasen aurpegiaren sortutako itzal eta argiuneen azpitik beren agin zurien irribarrez.

Artean, Josebaren oiturak berezkoak baziran be, denpora asko bakarrik igarotzen dauanarentzat guztiz bidezko iristen jakon legez, orain apur apurka goizerdiko footingaldiak, eguerdiko bazkariak eta arratsaldeko kafeak ez eben ezagutzen ezelako orduteqiri. "Elisagaitik, Elisarenzat" idazteari ekin eutsonetik, beren emaztearen ezagupen osoak kanpo ta barrutik, asintintzen ebazalako Josebaren adimen, entzumen, ikusmen eta


beste aalmen guztiak. Elisak narruzko zorroan ikastolatik ekarritako ariketei jarritako notei, zein erdipurdiko filme bati buruzko eritxiari, zein jardineko marraskilloak ilteko botika zabaltzeko moduari adituz, Josebak Elisaren edozertan dana azaltzeko aitzakia aurkitzen eban. Ez zan konturartzen, baiña, aal bait geien ikusi naiak beste erabateko itsukeri sorrerazten ebanik bere baitan egurenoko Elisa ezezagunago biurtzen jakolako, berarentzat emakumea nor, zein eta zer zan aaztuten joiakiolako.

Bein, deprimiturik egoala ta arratsalde baten etxera goizetik eldu zanean, Elisak besarkatu egiala eskatu eutson goznari eta gizona, bere abotsaren doiñu barri artan fijatu zan eta udazkenean kristaletik beera irristatzen dan euri tanta deslai bategaz konparatu eban. Akaso, mosu labur eta presatsu bat emon ondoren barriro beren idazmakinara biurtzean entzun eban Elisa negar zotin ixilagaz egin nai izango eban baita.


Esaldi bat idazten ebanean, garaipena sinatzen eban argazkiari mosu bat emonaz. Elisa onek irribarre algaratsu batez erantzuten eutson, norian ibilterakoan legez, burua atzerantz eginda ebala ule mataz arteza moltzo baten aizeak eraginda.

Elisak betirako etxerik joatea erabaki eta atetik urten ebanean, Joseba

beren emaztearen ibilkera astitsua deskribatzen ari zan. Ate ondoan Elisa gelditu egin zan une batez, eta Josebak astitsua zen ibilkera, penatutzat jo eban leenengoz. Biek begiratu eben argazkia: Elisak begiak itxita eukazan barrearen barrez leertu bearrean.



Miren Agur Meabe
1984 Irailak 27



Bertso Barriyak Ama Begoñakuari Bizkaitar batek jarriak.

-1-

Bertso polit batzuek
nai neukez atera,
baña duintasunik ez
askoren antzera.
Mesede billa nua
zeruko atera,
Kristau gustiyen Ama
Mariaz batera.

-2-

Sortu giñan bizkor
ezer ezetatik,
baña geixotu giñan
utzezin batetik.
Sugeari jaramon
Ebak egiñaitik,
gu aldendu genduzan
zeruko bidetik.

-3-

Sugeak eukan guzur
edo erejiya
galdu nairik Eba ta
bere jatorriya,
baita bere urrengo
jarraipen guztiya:
au da liburuetan
daukagun egiya.

-4-

Jaunak zirautsan suge
impernutarrari:
;zer ein deutzazu Eba
lelengo Amari ?
Guzurraz erañarren
pekatu oneri,
beste batek burua,
ausikotzu zeuri.

-5-

Jaunak beste Ama bat
ein eban argitu,
zeñen bitartez giñan
guztiok garbitu:
Ebak galdu genduzan,
Mariak aurkitu,
sugeari egiñaz
burua zatitu.

-6-

Mille urte ta geyau
igaroak dira,
Maria agertu zala
Bizkaiko errira:
Begoñako Artagan
edo artadira,
iñok egundo aintzat
ezeukan tokira.

-7-

Jaunak bialdu eban
bere graziakin
Begoñako errira
maitetasunakin,
Bizkayan izateko
gozotasunakin
Asauntziyoko izan
eta jantziyakin.

-8-

Nundik eta ez zelan
inok etzekiyan
Zeruko Ama an zelan
aurkitu zeikiyan:
baña gogoratu zan
guztien artian,
etorriko zala, gu,
galdu ezkeitian.

-9-

Agertu zan da geyau
Begoñan dau beti;
inor galdu ez dedin
Bizkaiko lurreti;
mezediak ugari
Jaunaren aurreti
ekarten dauskuzala
gu ez galtziaiti.

-10-

Mariyak egin ditu
ainbeste mirari
biyotzetikan bera
maite dabinari:
itxasoetan larri,
ibil direnari
orlako mezediak
ein deutsez ugari.

-11-

Ez dau mirari gitxi
ein itxasoetan,
Ama Begoñakoak
ontzi galduetan:
berai deitu deutsanik
estutasunetan,
ez dau bakarrik itxi
azken orduetan.

-12-

Untzitan jausirik
bein Andres Maidana,
ordu biyam uraren
barruan on zana,
untziya amar leguan
aurrera juana,
zan Mariyaren bitartez
alkantza ebana.

-13-

Gregorio Zaparta,
barriz, bost orduan
sarturik pelota artzen,
karobi barruan,
gizonari zirautzen
billa asitorduan:
kontuz ibilli,zerren,
bizirik nagan.

-14-

Naiz dala itxasoz,
naiz dala leorrez,
izaten gara beti
Amaren biarrez:
gu ikusi ezkerro
berari didarrez,
guri laguntzen dator
zeruko indarrez.

-15-

Ama Begoñekoak
dau ainbat meritu:
;zenbat mirari berak
egin ete ditu!
Mutuai itz eragin,
itsuak argitu....
;Zenbatu ezinbeste
berak egin ditu!

-16-

Adoredun ipiñi
adore bakuak,
zenbateri zuzendu
berna okertuak!
Eta zenbat osatu
geizo txarrekuak,
peste edo kolera
eta orlakuak.

-17-

Uraz ia itoan,
eta suaz erretzen,
ziranak,zenbat
zituan libratzen!
Bein bere ez dau Mariyak
iñor itxi galtzen,
biotz onagaz bada,
berangana eltzen!

-18-

Zenbat esker,mesede
maitetasunagaz,
ein ete dauz, gomutau
gaitian Beragaz!
Zordun aurkitzen giñan
Ama ain onagaz,
ipinteko Begoñan
koroï ederragaz.

-19-

Eun da amazapi txingar,
brillantedunetan,
eta ogetazortzi,
txingar artañetan
ta larogeta amasei
txikizkotietan
ta zenbat nai txikigaz
adornaturikan.

-20-

Mariyari ipiñi
eutsen burestuna,
zidarrezkua bera,
gañe oriduna,
beraren izeneko
Agirrek emona.
Ai, ze ospetsua zan
orduako eguna ;

-21-

Larogeta amozortzi
milla tauerleko
eta bosteun ganera
baliyoa dauko:
Agirrek emon eban
jakiñik norako,
bizkaitarren Zaindari
danen bururako.

-22-

Eleizia bete zan,
bai ta inguruak;
dana estaltzen eben
kristauen buruak,
auspesturik Amari
eiten errekuak,
Beragan ipiñita
uste seguruak.

-23-

Aberatz ta ez euki
andi ta txikiak,
ugazaba ta otsein,
zar eta gaztiak,
Eliz-buru nausi ta
erromes maitiak,
bere aurrian ziran
auspeztu guztiak.

-24-

Aita Santu zan. Leon
Amairugarrena,
onetako baimena
bialdu ebana:
koroiaz ipinteko
Begoñako Ama
Berak zaindu egiyan
Euskal erri dana.

-25-

Begoñan sarri izan
dira erromesak,
betetan Mariyari
eindako promesak,
amurraturik ona
ikusi nai ezak,
suge deungak bialdu
dituz satanasak.

-26-

Igesko urriyaren
amaikagarrena,
Bilbora suge deungak
agertu zirana,
zapaltzeko ustian,
Begoñako Ama,
oker jaso ezpaliz
euren uste dana.

-27-

Alperrik egin eben
eurak alegiña,
Erromesari kentzen
Jesusen dotriña;
Mariya nai ikusi
bai eta Begoña:
dana jatdetzi eben
kosta yaken baña.

-28-

Jesusek autu eban
Mariya Amatzat,
baita dau eskeñirik
munduko danentzat:
guztiyen goitik, barriz,
gaur bizkaitarrentzat,
ipiñi dabelako
euren Zaindaritzat.

-29-

Biotzian sartu yat
poztasun andiña,
Bizkaian ipintiaz
Zaindari barriña,
doyak ta birtute
danen jatorriña,
zein dan Jesusen Ama
Birjiña Mariya.

-30-

Guazen Begoñara
euzkeldun antzian,
Bizkaiko Patronaren
sariyak artzian,
Bere maitetasunaz
bagara eltzian,
gure Amak ezkaitu
itziko utzian.

-31-


¡Bizi bedi Mariya
bai ta euzkeldunak!
¡Bizi bedi Bizkaya
ta bere lagunak!
Onez igarorikan
munduko egunak,
danok izan gaitian
zeruan zorunak.

Pedro Enbeitaren bertsoak
(Munetxek, bertso paper zarra garbitu ta egokitua)
Bil-2012.02.02

Euskaldun barrientzat

Zazpi utsak

Ikasten



ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar
..... kalean (auzoan)..... zenbakian
..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,
an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “**ZER**”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Izar batek zerutik
klaritatez beterik
Gauaz ere argitzen du
beste ororen gainetik;
dudatzen dut baduenentz
mundu ontan parerik. (Bis)

Izar aren begia
ain da xarmagarria,
koloreak xuri-gorri,
perfekzioez betea,
eria ere senda liro
aren begitarreak. (Bis)

Uso zuria errazu
nora joaten zaren zu.
Espainiako bortuak oro
elurrez beteak dituzu;
gaurko zure ostatu
gure etxean baduzu. (Bis)

Ez nau izutzen elurrak
ez eta ere gau ilunak,
maiteagatik pasa nitzake
gauak eta egunak,
gauak eta egunak,
desertu eta oianak. (Bis)

Usoa eder airean
ederrago maainean.
Zure parerik ez dut ikusi
Espainia guztian
ez eta ere Frantzian,
eguzkiaren azpian. (Bis)

